

PRENTSA
OHARRA

"ZINE ARRAROA" ASTEAREN AMAIERA JONÁS TRUEBA ETA NACHO VEGASEKIN

Bihar, **ostirala**, amaituko da Zine arraroaren bigarren edizioa. Aste osoan zehar zinezale talde bat, ikus-entzunezkoen etorkizunean interesatua, Topaketako gonbidatu eta antolatzaileekin buru belarri murgildu da tailer, hitzaldi, proiektzio eta hizketaldi informaletan. Behin eta berriz azaltzen diren galderei erantzuna bilatzea edo horiei buruz eztabaidatzea izan dute helburu, ikus-entzunezko garaikideak eskaintzen dituen aukeren inguruan, zine esperimentalaren edo, besterik gabe, zinearen inguruan jardunez.

Topaketa bihar amaituko da **Jonás Truebak** gidatutako saioarekin. Eguna goizeko 10:00tan hasiko da Artelekun eta jarraian, **12:30etan, *Todas las canciones hablan de mí***, Jonás Truebaren film luzea proiektatuko da **Kutxaren Arrasate kaleko aretoan**. Lan horregatik aurtengo Goya sarietan zuzendari berri onenaren sarirako proposatuta egon da. Proiektzioa irekia eta doakoa izango da.

Arratsaldeko saioan, Truebak primizian erakutsiko du **Miniaturas** izeneko ikus-entzunezko eguneroko pertsonala, film labur moduan emana, non pixela eta efimeroa betiko zine klasikoarekin batera agertzen diren.

Azkenik, saioari eta Zine Arraroaren asteari amaiera emateko, Jonás Truebak **Nacho Vegasen** laguntza izango du, eta bien artean **hizketaldi-kontzertu bat** eskainiko dute, **20:00**etatik aurrera **Artelekun**. Jonásek Nachoren azken bioklipa zuzendu zuen eta Nachok, Jonásek filmaren soinu bandan parte hartu zuen.

MAPA kolektiboa da zine arraroa zikloaren sustatzailea, eta Victor Uriarte, Tamara García Iglesias eta Izibene Oñederrak osatzen dute.

Donostia, 2011ko ekainak 9

+ Info:
komunikazioa@tabakalera.eu
943 453662
www.tabakalera.eu
www.arteleku.net